



Ongizatea

2025-05-29 · 107.6 fm · Ataria.eus

GEHIGARRIA



HAURRAREN GARAPEN OSASUNTSUA HELBURU

Hamar urte baino gehiago daramatzate Tolosako Naia Zentroan haurtzaroari arreta, prebentzioa eta laguntza terapeutikoa ematen.

Jolasaren bitartez, familia eta bere ingurunea kontuan hartuta, haurraren garapen osasuntsua sustatzen duen gune espezializatu da Naia. 0-12 urte bitarteko haurrekin terapia saioak egiten dituzte, nola taldean hala banaka.

Honakoa zerbitzuak eskaintzen ditu zentroak: haur psikologia, jolas terapia, psikomotrizitatea, arreta goiztiarra-logopedia eta familia aholkularitza. Honez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako Arreta Goiztiarreko zentroa da Naia.

Familia-lotura da funtsezko abiapuntua. Haurrak euren eraldaketan izaki aktiboak eta bere prozesuaren protagonista bihurtzen dira. Gorputza, mugimendua eta jolasa giltzarri dira lehen haurtzaroko garapenean.

Orientazioa eta aholkularitzaren bitartez, go-goetarako espazio kolaboratiboa sortzen da, non familiei haurtzaroaren prozesua hobeto ulertzeko eta horri ekiteko beharrezko sostengua ahalbidetzen zaien.



**NAIA HAURREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Helbidea.

Zabalarreta parkea, 4. zenbakia (Tolosa)

Telefono zenbakia.

688 845 538

Webgunea.

nahiahaurgarapena.eus

Nori dago zuzendua.

Garapen arazoak dituzten edo horiek nozitzeko arriskua izan dezaketen 0-12 urteko haurrei; alterazio psikomotorrak, portaera alterazioak, hizkuntza eta garapen atzerapenak, emozio zailtasunak, harreman zailtasunak, ikasketa-prozesuetan zailtasunak, TEA, goiztiartasuna, adopzioa eta garapenarekin zerikusia duten bestelako arazoak.

ZEURE BURUA ZAINTEZKO AUKERA

Ehun Fisioterapiaren ardatzak pertsonen zaintza eta ongizatea dira. Pazienteak lesiotik ongizatera eramaten dituzte, baina lesio batzuk ekiditeko modu eraginkorrena aurretiaz lan egitea denez, arazoei aurrea hartzeko gaioak ere ematen dituzte. Esperientziaren eta ezagutzaren bidetik, arazo fisikoei erantzunak bilatu eta konponbidea jartzen diete.

Giro lasaian, konfiantzaren bidetik, apaltasun osoz, profesionaltasuna lege eta adeitasunez, Ehun Fisioterapiako egonaldian eroso sentitzea nahi dute. «Deserosotasuna eta mina murriztean datza gure lana, osasuna berreskuratu eta bizitza emankorrarekin jarraitzeko», esan du Imanol Sizar Ibarzabal fisioterapeutak. Ehun zentroan eskuekin lan egitea dute gustuko eta makinak beharrezko denetan bakarrik erabiltzen dituzte.

Arreta pertsonalizatu oinarritzen dira eta ez dute ezer zoriaren esku uzten; zentroaren estetika, erosotasunerako tresnak, temperatura, lurriak, musika, koloreak, apainketa, adeitasuna, ordena, garbitasuna... elementu guztiak mimo handiz aukeratu dituzte bezeroek egonaldiaz gozatu eta atsedean har dezaten.



ehun #
FISIOTERAPIA

**EHUN
FISIOTERAPIA**

Helbidea.

Agaramundu plaza, 1 behe (Tolosa)

Telefono zenbakia.

633 049 474

Webgunea.

ehunfisioterapia.eus

Posta elektronikoa.

info@ehunfisioterapia.eus

Sare sozialak.

Facebook eta Instagram

Zerbitzuak.

- Edonolako minak eta lanak eragindakoak
- Kirok lesioak
- Gorputza eta garuna zaintzeko tratamenduak
- Minari aurrea hartzeko eta bizi ohitura osasuntsuak mantentzeko tratamenduak

**OSTEGUNA, 2025EKO MAIATZAK 29****Argitaratzailea:**

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea:

Rebeka Calvo Gonzalez.

Kudeatzailea: Eider Aierbe Isasti.

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetaidea: 687 410 022.

anoetaidea@ataria.eus

Ibarraldea: 687 410 118.

ibarraldea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



ataria.eus

**ATARIA IRRATIA
107.6 FM**

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Aikiza, Aitzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goitaz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu- Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ERRESISTENTZIA KIROLLEN PRESTAKUNTZA

Kiolariak maila gorenera iristeko euren errendimendua hobetzen laguntzea. Horixe da Gailur Kirol Prestakuntzaren egiteko nagusia. Aitor Sanchez Bengoetxea ibartarra dago proiektuaren atzean, eta entrenatzailearen eta kirolariaren arteko har-tu-emaña oinarri duen prestakuntza per-sonalizatua eskaintzen du.

Kirolak betidanik izan du ibartarraren bi- zitzan garrantzi handia, eta azken urteetan erresistentzia kiroltan murgildu da, men- di lasterketetan lehiatuz. Halaber, bere for- mazioa ere arlo horretatik bideratu du, Jar- duera Fisiko eta Kirolaren Zientzietako gra- dua amaitu ostean Errendimendu Altuko Kirol Ziklikoetako Masterra burutuz. Hala, kirolari bezala duen esperientziak eta jaso- tako formazioak kirolariak entrenatzeko beharrezko baliabideak eman dizkiote.

Bere pasioetako bat bihurtu da kirolariei euren errendimendua hobetzen laguntzea, eta proiektua handitzen ari zela ikusita, jendaurrean aurkeztu eta herritar orenen eskura jartzea erabaki du aurten.

Kirolariak Aitor Sanchezengana jotzen duenean, lehendabizi bere bizimodua, ohi- turak, baliabideak edota lehentasunak



identifikatzen ditu. Horrekin batera, kirolariak dituen helburuak azaltzen ditu. «Barentzat lehen postuetan amaitzea izan dai- teke helburua, eta beste batentzat lasterke- ta bat ondo amaitzea. Demagun Behobia prestatu nahi duela kirolariak. Bere kirol ibilbidea aztertuko genuke, zein markaren

bueltan dagoen ikusi, eta horren arabera prestatuko genuke. Marka hobetu nahi badu, oinarrizko entrenamenduak ondo egiten badira, emaitzak nabarituko dira».

Bada, informazio guztia kontuan hartu- ta, entrenatzaileak planifikazio bat egiten du, eta entrenamendu saioen programa- zioa zehazten du. «Trainingpeaks platafor- marekin egiten dut lan. Bertan entrena- menduak *online* jartzen dizkiet, eta etenga- beko jarraipena eta analisia egiten dut».

Aitorrentzat funtsezkoa da kirolari ba- koitzak entrenamendu prozesuarekin go- zatzea. «Nire asmoa izaten da kirolaria epe motzera bere helbururako prestatzea, bai- na, aldi berean, entrenamenduaz gozatzea eta epe luzera begira, jarraipena izatea». Entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremana konfiantzan oinarritzea ere be- harrezkoa dela uste du ibartarrak. «Harre- man zuzena izaten dut kirolariekin, eta be- raiei laguntzeko nagoela ikustarazten diet».

Errepidea, mendia, triatloia, txirrindula- ritzita... sartzen dira erresistentzia kirolen barruan. Kirol gogorrek direla dio: «Sakrifi- katuak dira, baina, gauzak ondo eginda emaitza onak lortzen dituzu, eta horrek asko asebetetzen du. 30 minutu jarraian ko-

GAILUR KIROL PRESTAKUNTZA
Telefono zenbakia. 694 431844.

Instagram.
@gailur_kirolprestakuntza

Posta elektronikoa.
gailurkirolprestakuntza@gmail.com

Nori zuzendua.
Erresistentziako kirolari ororentzat

rri egiteko gai ez den pertsona beharrezko entrenamenduak eginez maratoni erdi bat egitera igarotzen dela ikustea izugarria da, bai berarentzat, bai eta niretzat ere. Edota, entrenamendu asko egin, baina emaitza oso onik lortzen ez duen kirolariaren ka- suan, gakoa puntu hori igotzeko funtsez- koa den entrenamendu sorta identifikatzea da, eta hor sartzen da nire egitekoa».

Bere errendimendu gorena bilatzeko eta disfrutatzeko modu bezala ulertzen du Aitor Sanchezek kirola. Gozatzeko, norbere burua ondo sentiarazteko nahiz lehiarako helburuarekin, bere laguntza kirolari guz- tien eskura jartzen du.

GORPUTZAREN ZAINTZA PROFESIONALA

Gaur egun garrantzi handia ematen zaio norbere burua zaintze- ari, eta gorputza benetan zaindu nahi duenaren erabaki zuzena adituengana joatea da. Onditz Ayes- taranek orain zazpi urte zabaldu zuen On- ditz estetika zentroa Tolosan, eta ia hoge- i urte daramatza lanean arlo honetan. Inter- net bidez *influencer* ugari aritzen dira pro- duktuak eta tratamenduak aholkatzen, bai- na lan hori profesionali utzi behar zaie. «*Influencerrak*-eta ari dira produktuei buruz gauzak esaten, hamalau urteko nes- kei zimurren aurkakoak aholkatzen, eta azalak garai bakoitzean bere beharrak ditu. Zimurren aurkako produktuak indartsuak dira, eta agian erreakzio batzuk izan ditza- kezu. Ikusi behar da ere azal bakoitza zer egoeratan dagoen eta zer behar dituen. Hori diagnostiko baten bitartez aztertzen da eta horren arabera protokoloak per- sonalizatu». Espezializatuta dagoen zerbitzu bat ematen du Onditzek, bakoitzari behar duena eskainiz.

Zentroan eskaintzen diren zerbitzuen ar- tean, azken berritasuna da aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak produktu biolu- mineszenteekin egitearena. Produktu hor- rien onurak laser argiarekin aktibatzen



dira. «Gaur egun jendeak ez du denbora asko izaten eta tratamendu honekin pro- duktu biolumineszenteen partikulak geru- za oso sakonetara sartzen dira, beraien era- gina handituz. Azalaren kalitatea asko ho- betzen dela nabaritzen da: hidratazio aldetik, zimurrak, biguntasunak...». Alde batetik, zentroan bertan kabinako trata-

mendua egitea da eta, bestalde, hori lagun- tzen da norberak etxean aplikatzeko kos- metikoen bidez: esfoliatzailea, seruma eta krema. «Horiek prestatuta daude argiare- kin aktibatzeko, bai argi artifiziala, bai kale- ko argia, eta led maskara bat ere badu eragi- na biderkatzeko».

Gehienbat emakumezkoak joaten dira

ONDITZ ESTETIKA ZENTROA
Webgunea. onditz.eus
Helbidea. Nafarroa etorbidea 1, behea; (Tolosa)
Telefono zenbakia. 943 96 89 93.

Onditz estetika zentrorra, baina gero eta gi- zonezko gehiago animatzen dira. «Azken urteotan nabaritu da gizonezko gehiago etortzen direla tratamenduak hartzera. Gehienbat fotodepilazioa egiten dute, eta aurpegiko garbiketak ere bai», zehaztu du Onditzek. Bezeroak gustura sentitzen dire- la azaldu du, eta bera ere gustura aritzen dela bere zerbitzua eskainiz. Zerbitzu hor- riek ondokoak dira: gorputzeko eta aurpe- giko tratamenduak, depilazioak, maniku- ra, makillajea, solariuma... Zentrorra berta- ra joan eta eskaintzen dituen zerbitzuen inguruan modu zabalagoan informatzeko gonbita egin du.

GERTUTASUNA ETA KONFIANTZA

Ilarki Elkargoak etxez etxeko laguntza eskaintzen du, pertsonalizatua eta gertukoa, zaintza behar dutenen ongizatea bermatzeko. 30 urte baino gehiagoko esperientziarekin eta 24 orduko arreta zerbitzuarekin, enpatia eta profesionaltasuna uztartzen dituen erreferente bihurtu da



ILARKI ELKARGOAK

Helbidea.

Gernikako arbola, 8 (Tolosa).

Telefono zenbakia.

943 65 40 44

Webgunea.

ilarki.eus

Posta elektronikoa.

ilarki@ilarki.net

Instagram.

@ilarki_elkargoa

dira lanaren oinarriak. Bezero bakoitzarekin harreman berezi bat sortzen da, zaintza ez baita soilik zeregin praktikoen multzo bat: harreman afektiboa eta gizatiarra ere bada».

Profesionaltasuna oinarri

Langileen lan-baldintzak zaintzea funtsezkoa da Ilarkirentzat. Hori dela eta, formakuntza etengabea eskaintzen dute etxez etxeko laguntzaren arloan, langileek egoera desberdinetan jarduteko baliabide egokiak izan ditzaten.

Formazio hori lanbidea profesionalizatzeko tresna izateaz gain, zaintzaileek konfiantza handiagoa sentiarazten die erabiltzaileei, eta zerbitzuaren kalitatea ere hobetzen du.

Arreta zerbitzua 24 orduz

Zaintza prozesuan gerta litezke ustekabeak edo larrialdiren bat. Horregatik, Ilarkik 24 orduz erabilgarri dagoen telefono zerbitzua eskaintzen du, larrialdietan eta bestelako premietan ere erantzuteko prest. Zerbitzu honek lasaitasuna ematen die bai erabiltzaileei bai haien senideei, bermatuta baitute edozein momentutan laguntza jasoko dutela.

Ilarkik argi dauka: zaintza ez da zerbitzu tekniko bat bakarrik, harremanetan eta konfiantzan oinarritutako prozesu bat baizik. Horregatik, eguneroko lanean, enpatia, gertutasuna eta profesionaltasuna uztartzen dituzte, pertsona bakoitzaren beharrak duintasunez eta errespetuz erantzuteko.

Gizartea zahartzen ari da, eta bizi-itxaropena handitzen den heinean, gero eta pertsona gehiagok behar dute, gutxiasko, laguntza, zaintza eta babesa egunerokotasunean. Horixe da Ilarki Elkargoaren helburua: pertsonen ongizatea bermatzea, euren erritmoa eta bizimodua errespetatuz, gertutasunetik eta enpatiatik abiatutako etxez etxeko laguntza eskaintzea.

1986az geroztik darama Kontxi Gonzalezek, irabazi asmorik gabe, zaintza eredu pertsonalizatu eta arduratsua garatzen, eta gaur egun, ia lau hamarkadako esperientzia duen erreferente bat da Ilarki Gipuzkoako hainbat udalerritan.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Ilarkiren zerbitzu nagusia etxez etxeko laguntza da, eta argia da bere helburua: erabiltzaileen bizitza erraztea eta hobetzea, haien beharretara egokituz. Laguntza hori, gainera, edozein tokitan eskaintzen dute: erabiltzaile bakoitzaren etxean, ospitalean edo kalean bertan. Mikel Mujika kideak zehaztu du lehentasuna: «Garrantzitsuena da pertsona bakoitzaren egoera eta behar zehatzak kontuan hartzea».

Hori horrela, hainbat egiteko barnebiltzen ditu haien zerbitzuak, horien artean, otorduak prestatzea eta elikadura zaintza; arroparen eta etxeko garbitasunaren arduraren mantentzea; konpainia eta laguntza emozionala; ohetik jaikitzen eta etzaten laguntza; janzea; paseatzea; garbitasun pertsonalaren zaintza; mediku tratamenduen jarraipena egitea eta osasun zentroetara laguntzea; etxeko segurtasunaren neurriak bermatzea; eta laguntza psikologikoa, besteak beste, egoera emozional zailak kudeatzeko.

Zerbitzua diskriminaziorik gabe eskaintzen diote laguntza behar duen edonori: mendekotasuna duten adinekoei, ezintasunak dituztenei, epe motzeko errekuperazio egoeran daudenei edo, besterik gabe, laguntza puntual bat behar dutenei.

Nola eman pausoa

Zerbitzua abian jartzeko, lehenik eta behin, elkarrizketa prozesu bat abiatzen dute, non erabiltzailearen egoera aztertzen duten. Bezeroak telefono bidez edo zuzenean bulegoan jartzen dira harremanetan, eta askotan, udaleko edo osasun zentroetako gizarte zerbitzuek ere bideratzen dituzte kasuak.

Ilarkik «enpatia sakona» du abiapuntu: jakitun dira laguntza eske joatea ez dela beti erraza, eta askotan baliabide ekonomikoak mugatuak izaten direla. Horregatik, elkargoak kasu bakoitza banaka aztertu eta zerbitzu pertsonalizatu bat diseinatu du, benetan egokiena den irtenbidea eskainiz.

Horren ondoren, zaintzaile egokiena izendatzen da, eta «komunikazio eraginkorra» eta konfiantzazko harremana sustatzen dituzte erabiltzailearen eta zaintzailearen artean.

Gertutasuna, ezaugarri bereizgarria

Ilarki ez da enpresa arrunt bat. Komunitatearekin lotura estua duen elkargo bat da, eta bere jarduna ez dago irabazietan oinarrituta, pertsonen bizi-kalitatean baizik. Horren erakusle da elkargoak parte hartzen duela, besteak beste, Mugi Tolosa proiektuan. Horrez gain, irabaziak elkargoaren barnean banatzen dituzte: langileen soldatak, prestakuntza eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko inbertsioak finantzatzeko.

Rebeka Romanek azaldu du balio horiek islatzen direla erabiltzaileei eskaintzen dieten zerbitzuan: «Harreman pertsonala, hurtz biltasuna, entzute aktiboa eta konfiantza



SABERRI

Lurrindegia · Kosmetika · Estetika



Zerbitzu berriak: • **Presoterapia** • **Begiradaren tratamendua**

Aurpegiko tratamendua

- Sothys garbiketa eta tratamendua
- Utsukusy Enpitsu arkatza

Begirada

- Betileen linfting-a
- Bekainetako laminatua

Gorputzeko tratamenduak

- Sothys intentsiboa
- Masajea

Depilazioa

- SHR laser sistema
- Aurpegiko depilazioa

Makillajea

- Ikastaroa
- Makillatzea

Manikura eta pedikura

- Normala
- Erdi-iraunkorra- OPI

943 67 11 28 • www.saberri.com • Kale Nagusia 17 • TOLOSA





ARNASTU ERLAUNTZAKO AIREAREN ONURAK!

Erleek neguko atsedena hartu ondoren,
Ikaztegieta erleen AIRE ETXOLAK
berriro ireki ditugu.



Erleen airea arnasteko interesik baduzu,
jarri gurekin kontaktuan telefono hauetan:
618 254 971 (whatsapp) edo 639 187 809
Alegiatik Orendainerako errepidea, 3. km

ORENDAIN - IKAZTEGIETA




MIKELAN
ORTOPIEDIA



30 urte baino gehiagoko esperientzia zure zerbitzura

- Ortopedian teknikari adituak
- Alkilerria eta salmenta
- Merkatuko marka onenak
- Hurbileko arreta pertsonalizatua
- Zerbitzu tekniko propioa
- Euskal Herriko ortopedia artikuluen erakusketa handiena
- Etxez-etxeko zerbitzua
- Diru-laguntza kudeaketa

Laskibar Bailara, 10 · IRURA · Telefonoa: 943 692 265 · Whatsapp: 659 231 083 · mikelan@mikelan.eus

www.mikelan.eus

«TEKNIKA EZ INBADITZAIILEEKIN EGITEN DIEGU AURRE BARIZEEI»

Teknika berritzaileenak erabilia barizeak tratatzen 15 urte baino gehiago daramatzate Variteken; hanketako barizeak kentzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko soluzio bila jarduten dute Donostia, Gasteiz, Bilbo eta Sevillako kliniketan. Pazienteei kirurgiarik gabeko tratamendu integral eta pertsonalizatu bat eskaintzeko teknologiak erabiltzen dituzte.



Iñaki Prieto erradiologia baskular eta interbentzionistan espezializatutako medikua da. Barizeen tratamenduan azkeneko urteetan egin diren aurrerapenak nabarmendu ditu.

Jendeak ba al daki zer diren barizeak?
Mito handi bat dago barizeen inguruan. Jende askok pentsatzen du kontu estetikoak baino ez direla. Guk gure kontsultetan bi barize mota bereizten ditugu: alde batetik, estetikoki gure hankak itsusten dituztenak; eta bestetik, berriz, osasun arazoa dakarteenak.

Errazak dira bereizten batzuk eta besteak?

Guk ekografia eta irudi bidez barize bakoitzaren inguruko azterketa zehatza egiten dugu. Dena den, modu errazean esateko, armiarma forma duten barizeak, urdin-berde kolorekoak, gehienetan barize estetikoak izaten dira. Eta osasun arazoa dakarteenak, aldiz, barize potoloagoak izaten dira.

Konplikazio handia sortu dezakete barizeek tratatu ezean?

Gerta daitezke osasun arazo larriagoak, bai. Barizea oso fase aurreratuan badago han-

kak puztu, belztu eta ultzerak sor daitezke. Tronbo-flebitis kasuak ere iristen zaizkigu kontsultara zenbaitetan.

Egoera horretara iritsi aurretik ezin al zaie aurre egin barizeei?

Gaitz isila da. Normalean pazienteak ez du sintomarik nabaritzen. Barizeak eduki eta % 80ak ezer nabaritu ez arren, ez du esan nahi zainetan pixkanaka gaitza garatzen ez doanik. Sintoma ohikoenak honakoak dira: azkura, mina, karranpak, inurridurak, kolore aldaketak, astuntasuna... Horregatik osasuna eta bizi-kalitatea arriskuan jartzen dituen arazoari irtenbide bat bilatzeko, mediku espezialisten eskuetan jartzeko gomendioa luzatzen diegu herritarrei.

Ba al daude barizeak prebenitzea?

Oso zaila da. Gehien gehienetan zainen alterazio anatomiko edo funtzionaletatik eratorritako iraupen luzeko egoera patologikoa da, bost heldutatik bati eragiten diona. Beti da onuragarria pisua kontrolatzea eta kirola egitea, baina genetikoa denez, goizago edo beranduago gaixotasuna azaleratuko da. Guri kontsultara maiz etortzen zaizkigu paziente gazteak, kirolariak, oso osasuntsu daudenak; dena ongi egiten duten arren, gurasoengandik jasotako herentzia daukate hanketan.

Zein da zuen pazienteen profila?

Adin guztietakoak, 16 urtetik 95 urtera artekoak. Emakume gehiago gerturatzen da, batez ere, barize estetikoengatik kezkatuta. Egoera hau ulertzeko da, emakumeek progesteronaren igoera eta jaitsierarengatik joera handiagoa dutelako barize klase hauek izateko. Nabari dugu, baita ere, gizonetakoak ez direla barizeekin hainbeste arduratzen eta beranduago etortzen direla kontsultara.

Barizeak sendatzeko saiatzen zarete ebakuntza ekiditen?

Bai. Asko aldatu dira tratamenduak norabide horretan. Gaur egun kateter eta irudi bidezko tratamenduak erabiltzen ditugu eta ez dut uste zentzurik duenik kirurgia erabiltzeak. Aurrerapen handia egin da azken urteotan eta teknika ez inbaditzaileak erabiltzen ditugu orain.

Nola egiten diezue aurre barizeei?

Barizeak tratatzeko bi tratamendu eragin-korrenak eskleroterapia eta kateterizazioa dira. Bi prozedurak ultrasoinu bidez gidatuta egiten dira, ebakuntza beharrik gabe, ambulatorioan. Paziente bakoitzaren arabe-

variTek
Tratamiento de varices sin cirugía

VARITEK DONOSTIA KLINIKA

Helbidea. Campo de Atotxa plaza, z/g, (Donostia)

Telefono zenbakia. 666 776 159

Webgunea. varitek.es

Posta elektronikoa. varitek@varitek.es

Instagram. [@varitek.es](https://www.instagram.com/varitek.es)

X. [@varitek4](https://twitter.com/varitek4)

Facebook. [@clinicavaritek](https://www.facebook.com/clinicavaritek)

RPS: 55/19

ra aukeratzen dugu teknika edo haien arteko konbinazioa. Horretarako, hasteko, diagnostiko zehatza egiten dugu barizeen jatorria non dagoen jakiteko. Paziente bakoitzari kalitatezko zerbitzua eta arreta pertsonalizatua eskaintzen diegu gure kliniketan.

Zenbat saio behar izaten dira barizeak desagerrarazteko?

Denbora laburrean hobekuntza handia jaso dezakete pazienteek. Guk tratamendu plan bat egin eta behin hura bukatuta senda-ageria ematen diegu pazienteari. Horrek ez du esan nahi, ordea, betirako arazoa desagertu denik. Gaixotasun kronikoa da barizeena eta ezin dugu ziurtatu beste zainen batean sortuko ez denik. Hala ere, gure klinikan saiatzen gara paziente bakoitzarentzat tratamendu bakar eta pertsonalizatua eskaintzen, errepikapenaren aukera gutxitzeko. Kalkulatzen da ebakuntzaren ondoren kasuen % 20etan, berriro ere agertzen direla barizeak. Hori ekiditen saiatzen gara tratamendu ez inbaditzaileekin.

Mingarriak dira tratamenduak?

Ez. Kirurgiaren aldean oso eramangarriak eta erosoak dira. Anestesia lokala erabiltzen dugu eta 20-30 minututan egiten dugu interbentzioa. Pazientea oinez ateratzen da kontsultatik eta ez du zaintza berezirik behar izaten.

Bi hanketan batera aplikatu daitezke tratamenduak?

Bai. Ebakuntzen kasuan ez bezala, bi hanketan aldi berean egin daitezke tratamenduak. Hori da guk aplikatzen ditugun tratamenduek duten abantaila bat.

etxebeste

HORTZ KLINIKA



**BISITA GAITZAZU
TOLOSAN**

943 654 601 · Nafarroa Etorbidea 1 · TOLOSA

etxebestedental.com